DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Giza Eskubideak
Derechos Humanos

Aiete pasealekua, 65 - Tel. 010 - 943481975 - giza_eskubideak@donostia.eus - www.donostia.eus/gizaeskubideak
20009 Donostia / San Sebastián

Ebazpena: Diru laguntza izenduna ematen zaio Euskal Herriko Unibertsitateari Donostiako Giza Eskubideen Ikastaroaren 30. edizioa antolatzeko

Resolución: Concesión de subvención nominativa a Euskal Herriko Unibertsitatea para la organización de la 30 edición del Curso de Derechos Humanos de Donostia/San Sebastián

Esp./Expe. 2026-ZUIZ-00007

Donostiako Udalak, hasiera-hasieratik, babestu ditu Euskal Herriko Unibertsitateko Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Harremanak eta Zuenbidearen Historia Sailak, *Francisco de Vitoria Euskal Herriko Nazioarteko Ikasketen Institutuarekin* lankidetzan, Donostian antolatzen dituen Giza Eskubideei buruzko Ikastaroak.

1997 geroztik etengabe egin den proiektu honen baitan, Giza Eskubideei buruzko ikastaroa ematen da, eta, gainera, urtekari bat argitaratu eta beka batzuk eman ere egiten dira, ikasle batzuek Estrasburgoko René Cassin Giza Eskubideen Nazioarteko Institutuaren Urteroko Irakaskuntza Saioan parte har dezaten.

Dagoeneko finkatutako ikastaroa da, 30 urte beteko ditu aurten. Oso tradizio handiko proiektua da, EHUren eta Donostiako Udalaren arteko giza eskubideen arloko lankidetzaren barruan kokatzen dena, dagoeneko Donostiako gizartean nahiz unibertsitatean finkatuta daudenak eta Estatuko unibertsitate guztietan hedapen handia duena. Ikastaro horiek erreferentzia dira jada giza eskubideen arloan, ez bakarrik Espainiako unibertsitateetan, baita mundu osokoetan ere, eta, bereziki, Latinoamerikakoetan.

Ikastaroen xedea da nazioartean eta estatuan giza eskubideak babestearekin eta sustatzearekin lotutako gai interesgarriak lantzea eta aztertzea, eta giza eskubideen alorreko prestakuntza espezifikoa ematea ikasleei eta gainerako parte hartzaileei. Urteetan zehar, gaur egun giza eskubideen arloan profesionalki lan egiten duten ikasle ugari prestatu dira helburu nagusietako bat betez: sentsibilizatzea eta, aldi berean, prestakuntza ematea.

Hala, 2026ko ekainaren 26an, diru laguntza emateko eskatu zuen Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak, Giza Eskubideen gaineko 30. Ikastaroa antolatzeko. Ikastaroak 18.000 euroren aurrekontua izango du, ikastaroa antolatzea, 29. edizioko hitzaldiak bilduko dituen liburua argitaratzea

El Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián patrocina, desde su creación, los Cursos de Derechos Humanos de Donostia-San Sebastián que organiza el Departamento de Derecho Internacional Público, Relaciones Internacionales e Historia del Derecho de la EHU en colaboración con el *Instituto de Estudios Internacionales del País Vasco Francisco de Vitoria*.

Este proyecto, que viene desarrollándose ininterrumpidamente desde 1997, incluye el curso anual de Derechos Humanos, la publicación de un anuario y la concesión de un número variable de becas para que el alumnado del curso asista a la Sesión Anual de Enseñanza del Instituto Internacional de Derechos Humanos René Cassin de Estrasburgo.

Es un curso ya asentado que este año cumplirá 30 años. Se trata de un proyecto de muy larga tradición, que se enmarca en la colaboración en materia de derechos humanos entre la EHU y el Ayuntamiento de Donostia, ya asentado tanto en la sociedad donostiarra como en la universidad y que tiene una amplia difusión en todas las universidades del Estado. Estos cursos son ya una referencia en materia de derechos humanos no solo en las universidades españolas, sino en las de todo el mundo, y, muy especialmente en las latinoamericanas.

Los cursos tienen como objetivo abordar y analizar temas de interés relacionados con la protección y promoción de los derechos humanos tanto a nivel internacional como nacional y ofrecer al alumnado y al resto de participantes una formación específica en materia de derechos humanos. A lo largo de los años se han formado en ellos numerosos estudiantes que hoy en día trabajan profesionalmente en materia de derechos humanos, cumpliendo uno de los principales objetivos: sensibilizar, al mismo tiempo que formar.

Con fecha 2026/0/26, la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea ha solicitado una subvención para la organización de la 30 edición del Curso de Derechos Humanos y ha presentado para dicho curso un presupuesto de 18.000 euros, que incluye la organización del curso, la edición de un libro

10740k XVII

eta ikastaroan parte hartuko dutenentzako beka kopuru aldakorra ematea ere sartuta, Estrasburgoko René Cassin Giza Eskubideen Nazioarteko Institutuaren Urteroko Irakaskuntza Saioan parte har dezaten.

en el que se recogen las conferencias impartidas durante el curso 29 y la concesión de un número variable de becas para la asistencia a la Sesión Anual de Enseñanza del Instituto Internacional de Derechos Humanos René Cassin de Estrasburgo.

Donostiako Giza Eskubideei buruzko Ikastaroen 30. edizioa 2026-2027 ikasturtean izango da, zehazki, 2026ko urritik 2027ko maiatzera.

La 30 edición de los Cursos de Derechos Humanos de Donostia-San Sebastián se desarrollará durante el curso académico 2026-2027; concretamente, de octubre 2026 a mayo 2027.

Arlo horretako gaietan espezializatutako pertsonak emango dituzten 10 hitzaldik osatzen dute ikastaroa. Saio bakoitzean gaiarekin lotutako film bat emango da, ikastaroan parte hartzen duten eta gonbidatutako hizlarien artean gogoeta eta eztabaida egiteko bidea jartzeko modukoa.

El curso se articula a través de 10 ponencias que imparten especialistas en las diferentes materias. En cada sesión se proyecta una película relacionada con la materia, lo que facilita la reflexión y el debate entre las personas que asisten al curso y los y las ponentes invitadas.

Saioak Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko *David Kato* Gradu Aretoan izango dira. Saioetako batzuk, azken urteetan bezala, San Telmo Museoan edo Antzoki Zaharrean egingo dira, Donostiako herritarrei irekitzeko.

Las sesiones tendrán lugar en el Salón de Grados *David Kato* de la Facultad de Derecho de la EHU. Varias de las sesiones se celebrarán, como en los últimos años, en el Museo San Telmo o en el Teatro Principal, abriéndolos así a la ciudadanía donostiarra.

Ikastaroen zuzendaritzak ikastaroa egin izanaren ziurtagiria emango die hala eskatzen dutenei eta gutxienez zortzi saio egin dituztenei, egindako jarduera eta horiei dagozkien orduak ere (60 ordu) adierazita.

La dirección de los cursos expedirá una certificación de haber realizado el curso a quienes lo soliciten y hayan asistido a un mínimo de ocho sesiones, con indicación de la actividad realizada y las horas correspondientes a las mismas (60 horas).

Aurrekoa kontuan hartuta, Gobernantza Irekia, Digital eta Elkartasuneko zinegotzi ordezkariak:

En atención a lo expuesto, la Concejala Delegada de Gobernanza Abierta, Digital y Colaborativa adopta la siguiente:

EBATZI DU

RESOLUCIÓN

1.- Diru laguntza ematea, pertsona onuraduna, laguntzaren mota, onartutako zenbatekoa.

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateari (IFK: Q-48180001B), 2026ko ekitaldiko aurrekontuko **18.000** euro ematea, diru laguntza izendun gisa (Diru Laguntzei buruzko 2003ko 38/2003 Lege Orokorraren 22,2 a) artikulua).

1º.- Concesión de la subvención, persona beneficiaria, modalidad de ayuda, importe concedido.

Conceder a la Universidad del País Vasco (EHU), CIF: Q-48180001B, la cantidad de **18.000** euros, del presupuesto del ejercicio 2026, en concepto de subvención nominativa (art. 22,2 a) Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones).

Euskal Herriko Unibertsitatearen Giza Eskubideen ikastarorako dirulaguntza izenduna, Donostiako Udalaren 2024-2026 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan aurreikusita dago, eta dirulaguntza horri dagokion Planaren fitxako helburu estrategiko eta espezifikoak lortzen laguntzen du. Hona hemen:

La subvención nominativa a la Universidad del País Vasco está prevista en el Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2026 del Ayuntamiento de San Sebastián, contribuyendo al logro de los objetivos estratégicos y específicos en la ficha del Plan correspondiente a esta subvención y son los siguientes:

Helburu estrategikoak: giza eskubideak sustatzea, guztion arteko bizikidetzarako oinarri gisa eta arlo honetako hezkuntz jardueren sustapena.

Objetivos estratégicos: fomento de los Derechos Humanos como base para la convivencia entre todos y todas y la promoción de actividades educativas.

Helburu zehatzak:

- Giza eskubideen sustapena bultzatzeko ekimenak babesteko konpromiso instituzionala betetzea.

- Donostiako Giza Eskubideei buruzko ikastaroaren urteko antolaketa. Ikastaroaren xedea da nazioartean eta estatuan giza eskubideak babestearekin eta sustatzearekin lotutako gai interesgarriak lantzea eta aztertzea, eta giza eskubideen alorreko prestakuntza espezifikoa ematea ikasleei eta gainerako parte hartzaileei.

- Donostiako Giza Eskubideen Ikastaroetan emandako hitzaldiak biltzen dituen liburuaren urteko edizioa.

- Bekak ematea ikastaroa ikasle kopuru bati Estrasburgoko René Cassin Giza Eskubideen Institutuaren urteko Irakaskuntza Bilkurara joarteko.

2.- Diru laguntzaren xedea.
Proiektu hori diruz laguntzea: "Donostiako Giza Eskubideei buruzko Ikastaroen 30. Edizioa".

3.- Zenbatekoa eta aurrekontu kreditua.
Diru laguntzaren zenbatekoa 18.000 eurokoa da, eta 2026ko Giza Eskubidetzako Gastuen Aurrekontu Arrunteko 481.03 partidari egotziko zaio.

4.- Aplikatu beharreko araubide juridikoa.
Diru laguntza honi, 2016ko apirilaren 21eko emakida ebazpena eta hitzarmena ez ezik, aplikagarri izango zaizkio Diru Laguntzen Lege Orokorra (azaroaren 17ko 38/2003) eta lege horren araudia onesten duen Errege Dekretua (uztailaren 21eko 887/2006), publizitate eta lehia printzipioei dagokienean izan ezik. Horrez gain, administrazio zuzenbidearen arauetan ezarritakoa bete beharko da, eta, horrelakorik ezean, zuzenbide pribatuko arauetan ezarritakoa.

5.- Onuradunak.
Onuradunak betetzen ditu onuradun jotzeko baldintzak, berak egingo baitu diruz lagunduko den jarduera (Diru Laguntzei buruzko Legearen 11. artikulua). Alde horretatik, erakunde onuradunak ez du Diru Laguntzen Lege Orokorreko 13. artikuluan diru laguntzaren onuradun izateko ezarrita dauden debekuetako bat ere.

Objetivos específicos:

- Cumplir con el compromiso institucional de apoyar iniciativas encaminadas a favorecer la promoción de los derechos humanos.

- La organización anual del Curso de Derechos Humanos de Donostia/ San Sebastián. El curso tiene como objetivo abordar y analizar temas de interés relacionados con la protección y promoción de los derechos humanos tanto a nivel internacional como nacional y ofrecer al alumnado y al resto de participantes una formación específica en materia de derechos humanos.

- Edición anual de un libro en el que se recogen las conferencias impartidas durante los Cursos de Derechos Humanos de Donostia / San Sebastián.

- La concesión de becas para la asistencia de un número de alumnos/as del Curso a la Sesión Anual de Enseñanza del Instituto de Derechos Humanos René Cassin de Estrasburgo.

2º.- Objeto de la subvención.
Financiar la realización del proyecto: "30 edición del Curso de Derechos Humanos de Donostia/San Sebastián".

3º.- Cuantía y crédito presupuestario.
La cuantía de la subvención que asciende a 18.000 euros, se imputará a la partida 481.03 de Derechos Humanos del Presupuesto Ordinario de Gastos de 2026.

4.- Régimen jurídico aplicable.
Esta subvención se regirá, además de por lo dispuesto en la presente Resolución de concesión, por lo previsto en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (en adelante LGS) y en el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la citada Ley (en adelante RGS), salvo en lo que afecte a los principios de publicidad y concurrencia, así como por lo establecido en las restantes normas de derecho administrativo y, en su defecto, por lo dispuesto en las normas de derecho privado.

5º.- Personas beneficiarias.
La entidad beneficiaria reúne la consideración de persona beneficiaria en tanto persona que realizará la actividad que fundamenta la concesión de la presente subvención (art. 11 LGS). Como tal, la entidad beneficiaria no está incursa en ninguna de las prohibiciones contempladas en el artículo 13 de la LGS para obtener la condición de beneficiaria de la subvención.

Zehazki, erakunde onuradunak egiaztatzen du egunean dagoela zerga betebeharrak (Foru Ogasuna eta Udal Bilketa) eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari dagokionez, eta ez duela premiamendu bidean atzera jasotzeko prozedurengatik ordaintzeke dagoen diru kopururik. Era berean, egiaztatzen du ez dagoela sartuta premiamendu bidezko kobrantzako prozeduretan. Udalarekin edo haren erakundeekin egindako zorrak direla eta. Gorabehera horiek egiaztatu beharko dira, berebat, hurrengo ordainketak egiten direnean ere.

En concreto, la entidad beneficiaria acredita que, se encuentra al corriente en el cumplimiento de obligaciones tributarias (Hacienda Foral y Recaudación Municipal) y con la Seguridad Social y que no tiene en vía de apremio cantidades pendientes por procedimientos de reintegro. Acredita asimismo que no se halla incursa en procedimientos de cobro por vía de apremio por deudas contraídas con el Ayuntamiento o sus entidades. Estas circunstancias deberán igualmente acreditarse en el momento de efectuar los pagos sucesivos.

Halaber, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bat egina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2 artikuluaren arabera, erakundeak honako hau egiaztatzen du:

Asimismo, en virtud del artículo 23.2 del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, la entidad acredita:

- diruz lagundutako jarduera ez dela diskriminatzailea sexuagatik edo 3.1 artikuluan jasotako diskriminazio anizkoitzeko faktoreengatik.

- que la actividad subvencionada no es discriminatoria por razón de sexo o por aquellos factores de discriminación múltiple contemplados en el artículo 3.1.

- sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik zigor administratibo edo penalik ez duela.

- que no se encuentra sancionada ni administrativa ni penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo o por incumplimiento de la normativa en materia de igualdad de mujeres y hombres.

- Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45.5 artikulua aplikatuz, erakundeak 50 langile baino gehiago enplegatzen dituela, eta aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboa aplikatuz, 2024/2028 Emakumeen eta Gizonen IV. Berdintasun Plana onartuta eta inskribatuta duela Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Agintaritza Erregistroan. Hurrengo estekan eskuragarria: https://www.ehu.eus/es/web/berdintasuna-direccionparalaigualdad/berdintasun-plana-2024-2028 (IV. Planaren 000873 zenbakidun Erregistroaren hartu-agiria erantsi da, 2. eranskinean).

- que en aplicación del artículo 45.5 de la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la Igualdad efectiva de mujeres y hombres, la entidad emplea a más 50 trabajadores/as y en aplicación del convenio colectivo aplicable, tiene aprobado e inscrito el IV Plan de Igualdad de mujeres y hombres 2024/2028, ante la Autoridad Laboral Autonómica del País Vasco. Accesible en el enlace: https://www.ehu.eus/es/web/berdintasuna-direccionparalaigualdad/berdintasun-plana-2024-2028 (se adjunta acuse del Registro n.º 000873 del IV Plan, en el anexo 2).

6.- Helburu bera duten beste diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekiko bateragarritasuna edo bateraezintasuna.

Diru laguntza hau bateragarri izango da edozein Administraziok edo erakunde publiko nahiz pribatuk (dela Espainiakoa, dela Europar Batasunekoa, dela nazioarteko erakundeetakoa) helburu berarekin emandako diru laguntzekin, laguntzekin, diru sarrerekin edo baliabideekin. Betiere, aintzat hartu beharko da diru laguntza edo laguntza horiei dagokien arauetan ezarritakoa. Hala ere, DLLOko 19.3 artikuluari jarraituz, emandako diru laguntzaren zenbatekoa (bai bakarrik, bai beste diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera) ezingo da, inolaz ere, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izan.»

6º.- Compatibilidad o incompatibilidad con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad.

La presente subvención será compatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin perjuicio de lo que pudiera establecer la normativa reguladora de dichas subvenciones o ayudas. No obstante, conforme al artículo 19.3 LGS, el importe de la subvención concedida en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada".

7.- Diru laguntza ordaintzeko epeak eta moduak. Bermeen araubidea.

Diru-sarrera bakarra egingo da, emandako zenbatekoaren % 100ekoa, berehala. Diru-sarrera ES3020 2095 0292 923239000001 kontu korrontean egingo da.

Pertsona onuradunari bermea ematea ez zaio galdatuko ez delako ebazpen honen bidez hartutako betebeharrak ez betetzeko arriskurik nabari.

8.- Jasotako diru kopuruak gauzatzeko / aplikatzeko epea.

Ikastaroa 2026ko urrian hasiko da eta 2027ko maiatzean amaituko da. Bekak 2027ko uztailean emango dira. Eta urtekaria 2027 urtea amaitu baino lehen argitaratuko da.

9.- Jasotako diru laguntza justifikatzeko epea eta modua.

Erakunde onuradunak diru laguntza honen helburu diren jarduerak egin izanaren egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu proiektuak amaitu eta hiru hilabete barruan, ondokoak jasotzen dituen jarduera zuritzeko kontu laburtua aurkeztuta: jardueraren memoria,diru laguntza ematekoan jarritako baldintzak bete direlakoa justifikatzeko, zer ekintza egin den eta zer emaitza izan den ere azalduta; jardueran izan diren gastuen eta inbertsioen zerrenda bana, zehatz jarrita hartzekoduna zein den eta zein dokumentu den, faktura edo dokumentu horrek zenbat diru egiten duen, noizko data duen, noiz ordaindua den eta, izan bada, zer alde izan den aurreikusitako aurrekontuarekiko; diruz lagundutako jarduera finantzatzeko balio izan duten beste diru sarrera edo laguntza batzuk, zenbat diru izan den eta nork emana den ere adierazita; eta, jarduera egin eta gero dirurik soberan gelditu bada, hura eta haien korritua itzultzeko ordainketa agiria.

Beste diru laguntzarik jasoko balu, 15 eguneko epean jakinarazi beharko luke

10.- Diruz lagun daitezkeen gastuak.

Diruz lagun daitezkeen gastutzat joko dira ondorengo hauek: indarrean diren arauei jarraituz egoki justifikatu diren, beharrezkoak diren, eta dudarik gabe proiektu edo jardueraren garapen normalari eta izaerari erantzuten dioten gastuak. Diruz lagun daitezkeen gastuen eroste kostua inoiz ere ezingo da izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Sektore Publikoko Kontratuen 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak kontratu txikietarako ezartzen dituen zenbatekoak baino handiagoa bada diruz lagundu daitekeen gastua, onuradunak gutxienez hiru

7º.- Plazos y modos de pago de la subvención. Régimen de garantías.

Se realizará un ingreso único, correspondiente al 100% de la cantidad concedida, de manera inmediata. El ingreso se efectuará en la cuenta corriente número: ES3020 2095 0292 923239000001.

No será exigible la prestación de garantía por parte de la persona beneficiaria por cuanto no se aprecia riesgo de que incumpla las obligaciones asumidas en virtud de esta Resolución.

8º.- Plazo de ejecución / aplicación de fondos percibidos.

El curso se iniciará en octubre de 2026 y finalizará en mayo de 2027. Las becas se concederán en julio de 2027. Y el anuario de editará antes de que finalice el año 2027.

9º.- Plazo y forma de justificación de la subvención percibida.

La entidad beneficiaria deberá justificar las actividades objeto de la presente subvención en el plazo de tres meses desde la finalización del proyecto mediante la presentación de la cuenta justificativa simplificada comprensiva de: memoria de la actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos; relación clasificada de los gastos e inversiones de la actividad, con identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión, fecha de pago y, en su caso, las desviaciones acaecidas respecto al presupuesto estimado; detalle de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación del importe y su procedencia; en su caso, carta de pago de reintegro en el supuesto de remanentes no aplicados así como los intereses derivados de los mismos.

En caso de recepción de otra subvención tendrán que comunicarlo en un plazo de 15 días.

10º - Gastos subvencionables.

Se considerarán gastos subvencionables aquellos que siendo correctamente justificados de conformidad con la normativa en vigor, son necesarios y responden de manera indubitativa a la naturaleza y al normal desarrollo del proyecto o actividad. En ningún caso el coste de adquisición de los gastos subvencionables podrá ser superior al valor de mercado.

Cuando el importe del gasto subvencionable supere las cuantías establecidas en la Ley 9/2017, de 8 de noviembre de Contratos del Sector público para el contrato menor, el beneficiario deberá solicitar como

hornitzaileri eskatu beharko die eskaintza bat egin dezatela, obra egiteko, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu baino lehen. Halakorik ez da egin behar izango, baldin eta kontratuaren ezaugarri bereziengatik behar beste erankunderik ez badago merkatuan eskatutakoa egin, eman edo ekartzeko, edo gastua diru laguntza eman baino lehen egin bada.

mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, con carácter previo a la contracción del compromiso para la obra, la prestación del servicio o la entrega del bien, salvo que por sus especiales características no exista en el mercado suficiente número de entidades que los realicen, presten o suministren, o salvo que el gasto se hubiere realizado con anterioridad a la subvención.

Aurkeztutako eskaintzen artean zein hautatu erabakitzeko (justifikazioan agertuko dira, edo, hala badagokio, diru laguntzaren eskaeran) efizientzia eta ekonomia irizpideak hartuko dira kontuan. Horrez gain, proposamen ekonomikorik onenaren alde egin ez bada, berariaz justifikatu beharko da, memoria batean, zergatik hautatu den hautatutako eskaintza.

La elección entre las ofertas presentadas, que deberán aportarse en la justificación, o, en su caso, en la solicitud de subvención, se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

Egindako gastutzat joko da akordio honetako 8. idatz zatian aipatutako justifikatzeko epea bukatu baino lehen egiaz ordaindutako gastua.

Se considerará gasto realizado el que ha sido efectivamente pagado con anterioridad a la finalización del periodo de justificación al que se refiere el apartado 8º del presente acuerdo.

Inola ere ez dira diruz laguntzeko moduko gastuak izango:
a) Banku kontuen interes zordunak.
b) Interesak, errekarguak eta administrazio eta zigor zehapenak.
c) Prozedura judizialetako gastuak.
d) Diruz lagundutako jardueraren zeharkako kostuak.

En ningún caso serán gastos subvencionables:

a) Los intereses deudores de las cuentas bancarias.
b) Intereses, recargos y sanciones administrativas y penales.
c) Los gastos de procedimientos judiciales.
d) los costes indirectos de la actividad subvencionada.

11.- Azpikontratatzeko baldintzak.
Diruz lagundutako jardueraren zati bat hirugarrenekin azpikontratatu ahalko da, emandako diru laguntzaren zenbatekoaren % 30raino gehienez, DLLOko 29. artikuluan eta DLAOko 68. artikuluan ezarritako betekizun eta debekuei jarraituz.

11º.- Condiciones de subcontratación.
La actividad subvencionada podrá ser objeto de subcontratación parcial con terceros hasta un porcentaje máximo del 100% del importe de la subvención concedida, de acuerdo con los requisitos y prohibiciones previstos en el art. 29 de la LGS y en el art.68 del RGS.

12.- Emandako diru laguntzaren berri zabaltzea.
Erakunde onuradunak bere burua obligatzen du diruz lagundutako jarduera dela eta erabiltzen dituen karteletan, plaketan, material inprimatuetan, bitarteko elektronikoetan eta ikus-entzunezko bitartekoetan Donostiako Udalaren logotipo ofiziala sartzera.

12º.- Difusión de la subvención concedida.
La entidad beneficiaria se obliga a incluir el logotipo oficial del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián en carteles, placas, materiales impresos, medios electrónicos o audiovisuales que utilice con motivo de la actividad objeto de subvención.

13.- Ez betetzeak eta itzulketak. Ezarritako baldintzak ez betetzearen mailak zehazteko irizpideak.
Diru Laguntzei buruzko Lege Orokorreko 37. artikuluan agertzen diren kasuetan, jasotako zenbateko osoa edo zati bat itzuli beharko da, bai eta horri dagozkion berandutze interesak ere (diru laguntza ordaindu zenetik itzuli egin behar dela erabakitzen den egunera bitartean sortutakoak).

13º.- Incumplimiento y reintegros. Criterios de graduación de los posibles incumplimientos de las condiciones impuestas.
Procederá el reintegro total o parcial de las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora correspondiente desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro en los casos previstos en el art. 37 de la LGS.

Proportzionaltasun printzipioa aintzat hartuta, ez-betetzeak irizpide hauen arabera graduatuko dira:

En atención al principio de proporcionalidad, se graduarán los incumplimientos en base a los siguientes criterios:

- Erakunde onuradunaren betetze maila guztiz betetzera nabarmen hurbildu bada eta erakunde horrek egiaztatzen badu bere konpromisoak betetzera argi eta garbi bideratutako jarduna egin duela, diruz lagundutako jarduerari zehazten zaion ez betetzearen ehunekoaren baliokidea den diru laguntzaren ehunekoa izango da itzuli beharreko zenbatekoa. Aurrez, diru laguntza eman duen organoak dagokion espedientea abiaraziko du.

- Cuando el cumplimiento por la entidad beneficiaria se aproxime de modo significativo al cumplimineto total y se acredite por ésta una actuación inequívocamente tendente a la satisfacción de sus compromisos, la cantidad a reintegrar vendrá determinada por el tanto porcentual de la subvención equivalente al tanto porcentual de incumplimiento de la actividad subvencionada que se determine, previa incoación del correspondiente expediente, por el órgano concedente.

- Udaleko Zerbitzuek finantza egiaztapen edo kontrolen bat egin eta ikusten badute diru laguntza kobratua izanagatik egindako gastuetatik denak edo batzuk ez direla ordaindu eta hartzekodunek gastu horiek ordaintzeko eska dezaketela, diru laguntza itzultzeko eskatuko zaio onuradunari, proportzionaltasun printzipioa aplikatuta. Egotzitako gastu guztien artetik ordaindu gabe utzitakoarekiko proportzioan itzuli beharko da emandako diru laguntza.

- Si en la realización de una comprobación o control financiero por los servicios del Ayuntamiento se pusiera de manifiesto la falta de pago de todos o parte de los gastos realizados, después de cobrada la subvención, siendo exigibles por los respectivos acreedores, se exigirá el reintegro aplicando el principio de proporcionalidad, a cuyo efecto se considerará reintegrable la subvención en proporción a los gastos no pagados respecto al total de gastos subvencionables imputados.

- Diru laguntza, laguntza, diru sarrera eta baliabideen baturak diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen badu, edo diru laguntza ematean erreferentziatzat gastu aurrekontu bat hartzen bada eta egotz daitekeen gastu justifikatua aurrekontukoa baino txikiagoa bada, diruz lagundutako jardueraren kostuaren gainetik dagoen kopurua itzuli beharko da, eta dagokion berandutze interesa galdatuko da.»

- En los supuestos de concurrencia de subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que superen el coste de la actividad subvencionada, así como cuando se concede la subvención tomando como referencia un presupuesto de gasto y el gasto imputable justificado es inferior al presupuestado, procederá el reintegro del exceso sobre el coste de la actividad subvencionada, así como la exigencia del interés de demora correspondiente.

14.- Norberaren ekimenez diru laguntza itzultzea.

Diru laguntza eman duen organoak diru laguntza itzultzeko eskaera egin baino lehen, erakunde onuradunak bere borondatez itzuli ahalko du. Behin dirua sartu eta gero, erakunde onuradunak diru laguntza eman duen organoari bidali beharko dio diru sarreraren egiaztagiriaren kopia bat, idazki batekin batera. Idazki horretan zehaztuko dira zer proiektutarako eman den laguntza, erakunde onuradunaren izena, zenbatekoa, eta diru sarrera zergatik egin den. Dirua norbere borondatez itzultzeak ez du kentzen berandutze interesak kitatu beharra.
Interes horiek diru laguntza ordaindu zen egunetik erakunde onuradunak egiaz itzuli duen arte kalkulatuko da

14º.- Devolución de subvención por propia iniciativa.

Antes de que se efectúe la petición de reintegro por parte del órgano concedente se podrá realizar por la entidad beneficiaria el reintegro con carácter voluntario. Una vez realizado el ingreso, la entidad beneficiaria deberá enviar al órgano concedente de la subvención una copia del justificante del ingreso acompañado de un escrito en el que se indique el proyecto para el que se concede la ayuda, el nombre de la entidad beneficiaria, el importe y el motivo por el que se realizó el ingreso. El reintegro voluntario no exime de la liquidación de intereses de demora que se calcularán desde la fecha de pago de la subvención hasta el momento en que se produjo la devolución efectiva por parte de la entidad beneficiaria.

15. Arau-hausteak eta zigorrak.

Gai horretan, DLLOko 56. artikuluan eta hurrengoetan eta hura garatzeko xedapenetan ezarritakoari jarraituko zaio.
Zehapenak jartzeko erabakiek Administrazio bidea amaituko dute.

15º.- Infracciones y sanciones.

En esta materia se estará a lo dispuesto en los arts. 56 y ss de la LGS y sus disposiciones de desarrollo.

Los acuerdos de imposición de sanciones pondrán fin a la vía administrativa.

16.- Jakinarazpenak.

16º.- Notificaciones.

Erabaki hau erakunde onuradunari jakinaraztea.

Notificar el presente Acuerdo a la entidad beneficiaria.

Donostian, sinaduraren egunean

Azaldutakoaren arabera, Gobernantza Irekia eta Kulturako Ordezkaritzako zinegotzi delegatuak, Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko uztailaren 6ko erabakiaren bidez eskuordetutako eskumenak baliatuz (erabaki hori Toki Gobernu Batzordearen 2025eko urriaren 29ko erabakiaren bidez aldatu zen)

En virtud de lo expuesto, la Concejala Delegada de Gobernanza Abierta y Cultura, en ejercicio de las competencias que le fueron delegadas por la Junta de Gobierno Local mediante acuerdo de fecha 1 de octubre de 2024, y modificadas por acuerdo de la misma Junta de fecha 29 de octubre de 2025

Ana López Loiarte
Gobernantza Irekia eta Kulturako Zinegotzi Ordezkaria
Concejala Delegada de Gobernanza Abierta y Cultura

Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado digitalmente :
Ana Lopez Loyarte (16/07/2026 13:59 CEST)
Egiaztatzeko / Verificación : https://www.donostia.eus/scve
Eskaera kodea / Código de petición : PP4N-E2VQ-NE89-ZIYA